

Raust! taldeko Karmelo Usategi abeslariari alkarrizketea

12. orrialdeak

Ama Dablam-en tontorra egin ostean, Everesterantza begira da Txikon

Urtailaren 25ean, Ama Dablam (6.858 metro) mendiaren tontorra egin eben Jonatan Garciak, Pasang Sherpak, Cheppal Sherpak, Kalden Sherpak eta Alex Txikonek. Everestera joan aurretik egun batzuetako atsedenaldia hartu dabe indarrak barrizatzeke. 10. orrialdea



Lendakaris Muertos-en kontzertua hilaren 8an Kiñu Gaztetxean

13. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

333

2020ko zezeilaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Agate Deuna bezperako koruak

Arratiako Korua, Arratia, Zornotza eta Bilbotik ibiliko da zezeilaren 4an, makilak hartuta, bere kopla errepertorioa ezetuten emoten.

Santa Ageda bezperan herritik zehar eta hurrengo domekan, Zeanuriko Santa Ageda ermitan, santearen bizitza eta martirioa

kontetan daben koplak kantauko dauz koru batek.


Herri guztietan, herritarrek osotutako koruak, batez be eskola-umeenak baina ez bakarrik, ibiliko dira auzoz auzo eskualdean sano errotuta dagoan tradizioari eusten. 5. orrialdea



Neanderthal hagin eta buruhazur zatia

Dimako Axlor kobako aztarnategian Jose Migel Barandiaranek topatutako giza fosilak, barriro aztertu ditu Asier Gomezek eta Joseba Riosek zuzendutako ikerketa talde batek eta Neanderthalen hiru hagin eta buruhazur zati bat topatu ditu. Arratiako lehenengo Neanderthal buruhazurra, hain zuzen be. Barandiaranen lan-egunkaria be aztertu dau Joseba Riosek eta buruhazur zatia Neanderthala izan eitekela jasoten da bertan. Aurkikuntza honeek, garrantzia handikoak izateaz gainera, Barandiaranek egindako lanaren kalidadea erakutsi dabe.

Dimako Axlor koban, sekuentzia arkeologiko luzea dago eta bertan, Neanderthalen kultura desbardinaren barri jakin daiteke. Neanderthalak 160.000 urte inguru iraun eben, sano egoera klimatiko desbardinetan. 8. eta 9. orrialdeak



ZEANURI

Artea neurtuz ospatuko dabe San Balendin Eleizondon

San Balendin eguneko hurrengo domekan izango da, hilak 16. Orduan, Andra Mari parrokiaren egindako mezaren ostean, San Balendinen irudia prozesinoan eroango dabe 50 metrora dagoan Piedadeko ermitara eta hango artearen neurketeari ekingo deusie. Ondoren agiri liburua eta giltzak pasauko deusaz oingo maiordomoak hurrengoari. Zeanuriko Eleizondo auzoa girotzeko herriko txistulariak eta bertsolariak egongo dira. 7. orrialdea



ARRATIA

Ehundaka lagun batu ziran Igorren lan, pensino eta bizitza duin eske

Eskubide Sozialen Gutunak deitutako greba orokorrak erantzun maila desbardina euki eban Arratiako herrietan; baita lan arloari jakonean be.

Mobilizazioak barriz, arrakastatsua izan ziran eta Igorren egindako manifestazinora bailara osoko ehundaka herritar batu ziran, lan, pensino eta bizitza duina eskatzeko. Ibilbidea amaitutakoan hainbat gizarte eragilek greba egiteko euren errazioak azaldu ebezan. Aitatuenean artean, prekariedade eta aberastasunen banaketa bidebakoa egon ziran. 5. orrialdea



ARRATIA

Galesko irakasle talde bat gurean izan da hizkuntza eta komunitatea aztertzeke

Galesko Gobernuagaz behar egiten dauan National Academy of Educational Leadership-eko ordezkariak egon dira gurean, hezkuntza zentroak, erakundeak eta gizarte eragileak bisitetan, hizkuntzak nortasunean, lurraldearen garapenean eta ondare kulturean daukan garrantzia landuteke. Zeberiko Jasone Aldekoa Berritzeguneko Hizkuntza Normalkuntzako Arratia-Nerbioiko arduradunak, azaldu eutsen euskeraren kasua.

Harridurea sortu eban Galesko irakasleen artean, EAEn izandako eskolearen euskalduntzeak. 7. orrialdea

Literatura txokoa

ALICIA EN EL PAÍS DE LAS MARAVILLAS

Mago batek lez, Lewis Carroll-ek txisteratik unxi bat ateraten dau. Holan, Aliziaren abenturak eta malurak hasiko dira eta idazleak amestutako mundu fantastiko baten murgildu arazoko deusku. Neskatoa, Alizia, hirugarren personan idatzitako liburu honetan, kapituluz kapitulu, personaia fantastiko desbardinakaz, animalia zein objektu antropomorfoakaz, alkartzen joango da eta egoera desbardin batzuei aurre egin beharko deutse. Liburuaren lehenengo zatian Alizia mundu horretan galduta ibiliko da eta bigarren zatian, ostera, neskatoak mundua ezaguna eukiko dau eta mundu horri aurre egiteko bere izaerea erakutsiko dau.

Alizia Iurralde miresgarrian

obra honetan logika zoroa, absurdoa eta surrealismoa da arau nagusia, eta hamabi kapituluotan, esaldi eta personaia ezagun eta ahaztezinak topaiko doguz. Bihotzeko erregina, eten barik oihu egiten dauana: "burua moztu deioela!"; unxia, berandu ailegetako kezka handia daukana, bere erlojuari eten barik begiratzeko deutsana. Halanda be, nire ustez personariak surrealistenak katua da. Aliziaren aurrean katua buztanaren puntatik desagertzen hasiko da eta agotik darion irribarretik amaituko da, halanda be, barrea bat-batean geldituko da gainerako katua atal guztiak daborduko desagertuta dagozanean.

Liburuak, John Tennil marrazkila-

ri britainiarren hogeta hamalau irudigaz lagunduta, 1865ean argitaratu zan. Orduetik hona, liburua literatura genero desbardinetan sailkatzen ahalegindu izan dira: literatura fantastikotzat edo miresgarrien ipuintzat hartu izan zan, ostean "zentu bako" generoan kokatu eban, eta geroago, surrealismo mobimentuak genero surrealistan sartu eban. Bestalde, obra hau inspirazio iturria izan da jente askorentzat, eta gaur arte errepresentazio ugari euki dauz, literaturan, artean, musikan... Aditu batzuen ustez be eragin sozial eta psikologikoak euki izan dauz sasoi viktoriarretik gaur arte. Askok sasoi haretako jendarte ingelesari egindako kritika zorrotza be badala dinoe.

Lewis Carroll

Alicia en el país de las maravillas

Alma Clásicos Ilustrados

126 orrialde



Nik ez dakit liburu hau umentzako ala helduentzako ipuina dan, dakidan bakarra da literatura unibersalaren parte dala. Neure kasuan behintzat, edozein atxakia ona da, umetatik liburu honetaz neukaz gogorapenak eta usteak zalantzan ipini eta irakurketa barria abiatzeko, eta gainera, nire ustez istorio hau zoroa eta dibertigarria dan lez, komenigarria da behin eta berriro irakurtea. Egizue probea.

Ane Rilo Gonzalez

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112	Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 38 50 14 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79	Bizkaibus 94 612 55 55 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.	zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.	16:00. * Igorretik urtetan da bost minutu lehenago. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
	Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Zezeilaren 3tik 9ra Goikoetxea. Dima. Ugarana 33 Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057	Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79	Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.	Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.	Ugao-Zeberio-Artea Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40. Basauritik (Ariz): 12:45. * Igorreko Instituturaino heltzean dira. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
	Zezeilaren 10etik 16ra N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863	Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15	Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etik 22:00etara 30 minuturo, azkenengoa zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.	Bilbo-Lemoa-Zeanuri Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Ermitabarri-Arrigorriaga Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
	Zezeilaren 17tik 23ra Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154	Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01	Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etik 22:30era 30 minuturo.	Artea-Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. * Basauriraino (Ariz) heltzean da. Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Arrigorriaga-Ermitabarri Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
	Zezeilaren 20tik 26ra Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten.	Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40. Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.	Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.	La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.	
	Zezeilaren 27tik 30ra Gomez Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.	Euskotren 94 433 33 33 Areatzako Notarioria 94 673 92 26	Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta	Artea-Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,	Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.
	Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13				

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpuri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Beatriz Azpuri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tirada: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Kanposantu/Ortusantu



Tradizino kristinuan, personea hilten danean, gorpuari lurra emoteko, baita nitxoan edo panteoian eukiteko leku publikoari kanposantu (kanpasantu, Diman jasotako berbea) edo ortusantu esaten jako (kamposántue, ortusántue, ahoskatuta). Batuan, hilerrri da. Kasu askotan, kanposantuak eleiza inguruetan egoten dira. Domu Santu jaiegunean (zemendiaren 1ean), kanposantuetan daukaguzan familiako, lagun, auzo zein ezagunengana hurbilduten gara, lora batzuk eroanez.

ERETXIA

Topa egingo dogu?



MONICA NUÑEZ
Musikoterapeuta eta
flamenko irakaslea

Bitxia egiten jata uragaz topa egiteak zorte txarra dakarrela batzuek daukien sineskeria. Ez dakit nondik datorren idea hori, eta topa egitean baten batek hori esaten dauanean, beti ateraten jata esatea "ura bizitza da barren! zelan ekarriko dau ba, zorte txarra?".

Gure herrialdean baso bat ur eukitea akaso munduko gauzarik normalena izango da, baina planetako beste leku batzuetan basu bat ur eukitea diamante bat eukitea da. Akaso gogoan izango bagendu ze pribilegio dan, beste persona batzukaz topa egin ahal izateko, ur hori eukitea, edalontzi hori, edalontzia altxetan dauan esku hori, gorputzaren mobimentu txiki hori... orduan, akaso, balio handiagoa emongo geunskio horretaz guztiaz gozatu ahal izateko daukagun zorte handiari. Nire aldetik, uragaz edo behar danagaz topa egiten jarraituko dot, poz handiz, garrantzitsuena topa egiteko asmoan bertan dagoalako: zeozer ospatzea.

Aitortzen dot nire familian, ia dana ospatzeko errazoi bihurtzen dogula. Ez urtebetetzeak, ezkontzak eta gainerakoak bakarrik (asko gustetan jakuz), gure familian oso ohikoa da domekako bazkari baten bat jaiki eta topa egitea beste batek esan edo egin dauan zeozerengaitik, barregarria edo intergarria izan dan zerbaistengaitik, edo topa egiteko modukoa iruditu jakulako gertatu jakunagaitik; edo beste barik, aukitik mobidu eta zutunik ipintearren. Eta edozerengaitik topa egin ondoren, amak barriro be topa egitea proposatzen dau beti, zera esanez: "familia batua inoz ez zapaldua". Askok gustetan jako esaldi hori. Oso Chiclanako matriarka da eta bere eskuetan dagoan guztia egiten dau familia batuta egon daiten eta inoz zapaldua izan ez daiten. Horretarako hutsik egiten ez dabezan bere "arma"k, maitasuna, umorea eta alaitasuna dira. Gainera, andra

flamenkoa danez, herentzian arte handia itxi deusku, eta gu saiatzen gara arte hori leku guztietara erosten.

Lau urte dira Bizkaian bizi nazala, eta zorte handia daukat gustuko dodan guztian egiten dodalako behar: flamenkoa abesten (eta kantetan irakasten), musikoterapia saioak egiten eta Jabekuntza Eskoletan andrentzako tailerrak emoten.

Klaseak hasi aurretik beti proposatzen deutset andrai itxurazko topa bat egitea. Topa egiteko plantak egiten doguz, bakotzak une horretan gura dauan sabora ipinten dau ameseko edalontzi horretan, topa egiten dabenak gure atzamarrak dira, eta ospatzeko modukoa iruditzen jakun zerbaist esaten dogu. Hasi keran kosta egiten da, badirudi ospatzeko modukoak "gertaera handiak" baino ez dirala. Baina apurka-apurka honeek esaldiok ateraten dira: "Gugaitik", "bizirik gagozalako", "gaur etortetik izan dogulako", "momentu honeek partekatzeagaitik", "alkarregaz ikasten gabizen guztiagaitik", eta abar.

Eta hemen ez dago urik, ezta ardaorik be, hemen garrantzitsuena momentu baten geratu, alkarren begietara begiratu eta ospatzen jarraitu ahal izateko bizirik egotearen pozaz eta zortiaz jabetzea da. Beraz, bai! Topa egin daigun!

LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

Erizaina naz

Listo! heldu da garaia, bizi-modu aldaketa gainean daukat nire borondatez eta ez dakit zelan azaldu bolada honetan biziten nagoan sentimendu nahasketa hau. Nire aukerea izanda, ez dot ulertuten zergaitik sentiduten nazen holan.

Egia esan lana ixtea pentsetan hasi nintzanean bertigo apur bat emoten eustan atzera bueltarik ez daukan ebazia dalako. Zorionez inoz ez dot izan lanaren etenaldirik ez bada oporrak edo gaixotasunengaitik, horregaitik ebazia gogorra da.

"Etapari berri bat hasiko dozu, gauza asko egiteko aukerea eukiko dozu", esaten deusta inguruko jenteak zoriontzan nauan bitartean. Bai, errazioa, baina bizitzaren etapak ez dira infinitoak eta etapa hau hurrago dago helmugatik. Lanean dihardugun bitartean heriotzearengandik ezkututzen edo urruntzen garala emoten dau, nahiz eta lan istripuan harapatuta gelditu lantzean behin.

Beharbada jubilaute dagozan persona askorentzat ezagunak dira sentimendu honeek, ba nik jubilaute aurretik duela pasetan nabilela uste dot.

Buru eme personakaz lanean, umeen mundu majikoan murgiltzeko ahaleginetan, nerabeengana ia ezinezkoa dan hurbiltasun keinuak probetan, egunero zazpi ordu pasau dodaz urte askoan. Erizaina naz eta harro nagoala argi esan gura dot. Era berean energia gixxituta dagoanean, oin arte lanari eskainitako zazpi ordu horreek oso ordu preziaduak izango dira nire gauzetan inbertiduteko.

Komentario bitxia entzun neban baten, "jubiletan garanean beste maila baten kokatzen gaitu gizarteak eta inor ez izatera pasetan gara". Harrituta geratu nintzan, lana edo enplegu duina behar dogu duintasunez biziteko duda barik. Lantokian bizipen oso fuerteak konpartiduten doguz lankideakaz eta gure kasuan herritarrazak be, harreman interesgarriak sortzean dira, lagunak be egiten doguz zelan ez, ikasi eta irakatsi egiten dogu, eta lanbideari agur esaten deusagunean gu gara garai baten lan merkaduan sartu ginan persona berberak gehi bidean lortutako hori guztiori.

ZERTZEAN



ANDONI SOLOZABAL IGLESIAS

1

Miseria, gosete uholde ta sute gerra, bonbardaketa jazarpen, sikute mila eraso mota sahiestean truke askok bere herria utzi behar dute.

2

Euskal Herritik be bai leku askotara etxetik ihesean hona eta hara bizi hobean bila Ameriketara gaur egun ere asko erbestean bada.

3

Ibiltzen gara nola txakur eta katu anaitasunez behar genuke jokatu muga eta harresi kendu ta bukatu mundu aske bat gura dot aldarrikatu.

4

Beharrak asetuta sano bizi gara gure jaioterrian bertatik bertara eskuzabaltasuna gauza handia da konpartidu ezkerrean danontzako bada.

5

Ez daitezen geratu hotz kale gorrian hartu daiguzan bero norbere herrian serio bezain gogotsu jo ta ke lanian badabil taldetxo bat gure Arratian.

6

Gizalegez jokatu uxatu mamuak kultura desberdinei zabaldu besuak geu be izan baikara ondo artatuak beti ongi etorri errefuxiatuak.

BEGI TXINDORRA

Berrogeta bost urte asko ala gitxi dira? Nondik begiratzen dan. Gure alaba txikerrak esango deus piloa dirala, gure amarentzat -80ranta doaez dira horrenbeste. Eta niretzat, bada, ahizta nagusiak daukazanak.

Proiektu baten gainean berba egin ezkerre, ostera, kanbieten ete da kontua? Proiektu hori, personak lez, sortu eta hazi egiten da, bidean aberastuz, garatuz, hankea sartuz eta ateraz. Izan be, proiektu bakar batek milaka bizimodu batzean dauz bere barnean.

Urteak erakusten deuskue garai latzetan, arantza artean, sortutako proiektuak bereziak dirala. Historiak berak egiten dauz berezi; halanda be, horrek ez dau inoz biziraupena bermatzen.

Badakigu arantzen artean lorak be sortu leitekezana; baina lorazaina behar izaten da, lorak biziraungo badabe. Eta horretan suerte handia izan dau Arantzartek, jantza talde batek euki leiken lorazainik onena euki daualako urteotan. Izan be, argi dago berak jakin dauana bere jakituria eta, batez be, jantzeagazko pasinoia transmitiduten.

Urtailaren 18an ospatu eban Arantzartek 45. urteurrena. Lorazainik ez jako falta, lorarik be ez. Kolore eta edade guztietakoak daukaz, danak musikearen airera gozo eta fin jantzen diranak.

45 urte ez dira gitxi, baina asko be ez dira oindino beste horrenbeste eta gehiago ibilteko daukazanarentzat. "Jantzen egiten dauan herria ez da inoz hilko" esanda agurtu ginan lehengoan.

Zuokaz salbauta gagoz!

Zuriñe Yarritu Azpitarte



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Olatondegia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 801
R.P.S. 31/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Erroitz
Lehendakari Agirre 12
Auzoan gorriak azaldu.

ARRATIA

Arratian mobilizazio jentetsua greba egunean



Erredakzioa

Urtilaren 30eko grebaren jarraipenak gorabeherak izan baebazan herri eta arloaren arabera, mobilizazioetara jente ugari batu zan; batez be, Igorren egindako arrastiko manifestazinora. Bertan, ehundaka lagun batu ziran lan, pensino eta bizimodu duina eskatzeko.

Arrastiko 18:00etan, Batz Araluce enpresaren aurretik urten zan manifestazioa. San Juan, Sabino Arana, Agirre Lehendakaria eta Elexalde kaleetatik pasau ondoren, Lasarte parkean amaitu eban ibilbidea. Han, industriako beharginak, gazteak eta feministak zeintzuk ziran euren greba egiteko errazoiak azaldu ebezan. Industriako beharginenak, Araluceko behargin batek azaldu ebazan. Lan prekaridadea eta laneko istripuak salatu eta langileen burrukea aldarrikatu eban.

Prekariadeari aurre egitea, gazteen errazoiaren artean be egon zan eta manifestazioagaz, bizitza erdigunean ipini ebela esan eban gazteen bozeroaleak, "indarkeriari, prekaridadeari, konsumo ereduari eta egunerokotasunean gazte zein helduok jasoten doguzan zapalkuntzai aurre egiteko".

Feministak be, konsumo eredu kapitalistek mundu globalean miseriarra kondenetan dauzan

andrak aitatu ebezan manifestazioa egiteko errazoiaren artean.

Igorrekoa ez zan eguneko mobilizazio bakarra izan. Goizean arratiarrak lan, pensino eta bizitza duinaren aldeko Eskubide Sozialen Gutunak deitutako Bilboko manifestazioan egon ziran. Bilbokoan, 50.000 lagun inguruk hartu eban parte deitzaileen arabera.

Greba

Grebak jarraipen desbardina euki eban Arratian, herri eta arloen arabera. Holan, BEGITUREN iturrien arabera, denda eta tabernai jagokienean, Zeanurin, barbarako, "dana egon zan zarratuta" eta Igorren be, komertzio, taberna eta industrialguneko enpresa gehienak zarratu egin eban. Goizean piketeak ibili ziran, industrialgunetik lehenengotik, eta herritik gero. Lemoako komertzio eta tabernai jagokienean, erdizkako erantzuna izan eban grebak. Zeberion eta Areatzan barriz, salbuespenak salbu, gehiena egon zan zabalik.

Eskoletan be segmentu desbardina izan eban grebak. Zeanurin eta Areatzan, irakasleen % 63,5ek eta % 61ek egin eban greba hurrengo hurrengo; Artean, Zeberion eta Igorren gitxieneko zerbitzuak baino ez ziran egon.

Eskoletako jantokietan, langileen %34ak egin eban greba.



ARRATIA

Agate Deuna aintzaldutako koplarik bai Arratian

Aurten be tradizioak agindutako moduan, Arratia, Ubide eta Zeberioko auzune eta herrietako kaleak, koruz beteko dira zezeilaren 4an, makilak eskuan, santari koplak kantetako.

Erredakzioa

Arratiako Koruak, Arratian bakarrik ez, Arratiatik kanpo be kantauko dau Garazi Navasen zuzendaritzapean. Lehenengo urtea da Navas Arratiako Koruko zuzendari dala, baina hirugarren urtea Koruan dagoala koplak kantatzeaz gainera, akordeoia jotzen. Arratiako Koruaren errepertorioa lau koplak osotuten dabe: Zaharra, Salaberrirrena, Intxustirrena eta hiru abotsetara akordeoigaz kantetan dabena. Koplez gainera, Madinaren *Aita gurea* eta beste kantu batzuek be kantetan dabez. Aurten, bederatzi eta 69 arteko berrogeta hamabost lagun inguru ibiliko dira Arratian, Zornotzan eta Bilbon abestuten. Arratiako Koruak, urrian Vatikanoko Kapera Sixtinan abestutako konbidapena jaso dau.

Arratiako Koruaren ibilbidea

Aurreikusitako ibilbidearen arabera, partaideak 07:45ean hartuko dabe autobusa Igorren Areatzara joateko. 08:00etan mezea entzungo dabe Areatzako parrokiaren. 08:30ean, izango da urtekerea; 08:45ean, Zeanurin kantauko dabe; 09:15ean, Diman; 09:30ean, Igorren; 09:45ean, Lemoan; 10:00etan, Zornotzan. Barriro be autobusa hartu eta Bilborantz abiaturiko dira. Han, 11:15ean, kantauko dabe Begoñako Basilikan; 12:00etan, San Anton, Erribera merkaduan, Euskal Museoan, udaletxean, Laboral

Kutxan, BBVAn, El Corte Inglesen eta Kutxabanken; 13:45ean, Bizkaiko Foru Aldundian eta Moyua Plazan eta 14:30ean, Guggenheim museoan. Ondoren bazkaria eta 17:00etan ekingo deusie barriro ibilbideari, Albia lorategian, Zabalgunean, Egilor Plazan, La Viña jatetxean, Kale Nagusian, Areatzan... 18:30ean, San Nikolasen, metroan eta Donibane santuen plazatxoan. 19:20an, Santiagoko katedralean eta 19:45ean, agur esango deusie Bilbori Arriaga aurrean. Azken txanpa: 20:15ean, Galdakao; 20:40ean, Bedia; 21:00etan, Arantzazu; 21:15ean, Artea eta egunari amaiera emongo deusie Areatzan 21:30ean.

Zeanurin ondo errotutako tradizioa

Zeanurin, tradizio handiko koruak eta barriagoak be ibiliko dira herriko erdigunean eta aparteko auzuneetan, makilak eskuan, tradizioari eusten deusian koplak errepertorio aberatsa kantetan. Santa Agedaren hurrengo domekan Santa Ageda ermitan kantetan dauan koruak barbarako, Agedaren bizitza osoa eta martirioa kontetan dauzan koplak kantetan dauz mezan, dultzaina eta panderoaren laguntzeagaz.

Koru hori ez bakarrik hurrengo domekan ermitan, Agate Deunaren egunaren bezperan be urtetan da santaeskean. Arrastiko 15:00etan batzean dira korukoak Jubiladuen tabernan, eta euren

ibilbidean, auzunez gainera, etxe bakar askotara be joaten dirala azaldu deusio BEGITURI partaideetako batek. Izan be, normalean beste koruen ibilbidetik kanpo geratzen diran etxe eta auzuneetara joan gura izaten dabe, koplak herritar guztiakana heldu daitezkan. Gaubeko 10:00ak aldera amaituten dabe jarduna. Askotan, egun horretan batutako diruagaz egin dira konponketak ermitan.

Undurragako korua be tradizio handiko korua da. Partaideak, 17:00etan batu eta Undurraga, Altzuaga, Ipiñaburu, Undurraga eta Eleizondotik ibiliko dira, plazan amaitutako.

Asterriakoak be ez dira faltauro urteroko zitara eta plazan eta auzunean ibiliko dira santaeskean.

Beste koru eta talde batzuk

Zezeilaren 4an, abesbatzak, eskola umeak, parrokiako koruak, lagun taldeak edo-eta kultur alkartetakoak urtengo dira Arratia, Ubide eta Zeberioko auzune eta kaleetara, santa eskean, gurean ondo gordetako ohitura zaharrak bizirik dirauala erakutsiz.

Bedian, arrastiko 17:00etan batuko dira herritarrak, gero auzorik auzo kantuan joateko. Arteako eskola-umeak 14:45ean urtengo dira herritik kantetan.

Igorren, urtero lez, parrokiako korua be, beste batzuen artean, urtengo da koplak kantetan. Kantariak futbol zelai aurrean batuko dira 15:00etan eta hiru talde osotutako asmoa daukie Igorreko auzune guztiak bisitetako. Iluntzean, hiru taldeak bat eginda, kalez kale eta tabernaz taberna kantauko dabe herrian zehar.

Lemoan, eskola-umeak eskolan bertan abestuko dabe, gero, 09:45ean udaletxean Arratiako Koruagaz batera, eta gero herrian zehar jarraituko dabe. Ubiden be urtengo dira umeak koplak kantetan arrastiko partean. Baita Zeberion be. Eskola-umeak, edadearen arabera bananduko dira hiru taldetan eta herriko auzuneetatik zehar ibiliko dira koplak kantetan.



IGORRE

BATZek ez ditu sartuko Araluceko beharginak taldeko beste enpresetan**Erredakzioa**

Urtailaren 3ko bileran eskatu eutsan Araluceko enpresa batzordeak BATZeri beharginak taldeko beste enpresetan sartzeako. BATZ S. Koop-ek urtailaren 16an emondako komunikaduan, Araluceko beharginak egindako BATZ taldeko beste enpresetan txertatzeko eskaerak ez daukala lege-ahala dino; Araluce bere kontuez arduratzen dan soziedade burujabea dalako. Gainera, konkuro prozesua hasteko errazioak ekonomikoak dirala eta ez produzino edo antolakuntzakoak eta horregaitik ezin jakiera beharginai beste behar bat emon.

Komunikadu honegaz BATZek ezeko emoten deutso eskakizunari. "Prensaren eta BATZ S. Koop-en komunikaduan bidez jakin genduan ez dabela onartzen urteera traumatikoak ez egiteko, beharginak BATZ taldearen lantegietan birkoloketako enpresa batzordearen proposamena" azaldu deutso BEGITUri Araluceko enpresa batzordetik.

Aralucek diru galerak ditu 2015etik, atzen urteotan larriagoak egin diranak. BATZek

2016an erosi eban Araluce. BATZ-en arabera, galera ekonomiko honeek dira likidazio prozesua hastearren errazioa. "Prozesu hau ebitau ezina da eta mundu osoan kotxe barriak sortzean ez diran ziurbakotasun ekonomikoagaitik gertatzen da".

Bide judiziala

Negoiazinoen bidez akordio batera ez diranez heldu, bide judizialak dirudi bide bakarra. "Gaur egun, bide judizialak aukera bakarra dirudi, oin gagozan merkataritza epaitegian, eta, gero, gizarte arloko epaitegiara jotea" dinoe Aralucekoak. BATZek be komunikaduan "gatazka, jagokon instantzietan ebazten dagoala" dino.

Bilboko Merkataritza arloko 2 zenbakiko Epaitegiak, zemen-dian, Araluce likidazio prozesuan sartzea ebatzi eban; horrek dakarren kontratuak azkentzeko enplegu erregulazino espedienteagaz. Hori aurrera doa eta konkuro kudeatzaileari jagoko likidazio plana prestatzea.

Bitartean, Araluceko beharginak burrukan jarraituten dabe euren lanpostuen defentsan.

DIMA

Andraizeak boltsa diseinuen lehiaketea abiatu dau**Erredakzioa**

Dimako Andraizea andra taldeak boltsak diseinetako lehiaketea ipini dau martxan. Diseinuak zezeilaren 10era arte bialdu daitezke andraizea@gmail.com helbidera.

Gaia, andra taldearen helburuak bat datorrena izan behar da; gizon eta andren arteko aukera bardintasuna edo andren ahalduz, barbarako. Egile bakoitxak gehenez hiru diseinu bialdu ahal izango ditu eta epaimahaiak hilaren 14an ebatziko dau irabazlea zein dan. Sarizat, alkarreak 2020an aterako dauan

materialeen ale bat izango da.

Bazkietza kanpaina

Dimako andra taldeak bazkideak egiteko kanpaina bat be ipini dau martxan. Hamasei urtetik gorako andra feministak behar ditue. Bazkideak urtero 20 euroko kuotea ordaindu eta taldeak antolatuten dituan ikastaro, txango eta beste ekintzetan deskontuak izango ditue.



ARTEA

Mugak Zabalduz Karabana sareak udan Balkaneetara bidaiatzea ebatzi dau**Erredakzioa**

Lurralde desbardinatoko hirurogeta hamar persona batu ziran Artean urtailaren 24tik 26ra Mugak Zabalduz Karabanak (MZK) 2020 egindako prestaketa topaketan.

Arteko herria, persona migratzaileen harreran erreferente da, eta 2016tik migratzaileen eskubide urraketea salatzen Europako mugan zehar ibiltzen dan aktibista sarearen partaideak hartu ebazan astegoienez. Topaketan, peninsulako 16 lurraldetatik etorritako aktibistak egon ziran, baita pasa dan udan Andaluzia eta Ceutako hegoaldeko mugara joandako Carovane Migranti Italiako sarearen 9 ordezkari.

Aurkeztutako proposamenak eztabaidatu ondoren, aurtengo udarako aukeratutako lekua Balkanak dira, eta bertara garagarilaren 17 eta 26 bitartean joango dira Mugak Zabalduz Karabanakoak.

Hemendik aurrera batzorde eta koordinazino lan bat hasiko da ekimena aurrera aterateko.

Mahai-ingurua

Domeka goizean, migratzeo eskubidea eta migratzaileen eskubideen aldeko esperientzien gaineko mahai-ingurua egon zan. Aurkeztutako esperientziak honeek izan ziran: Carovane Migranti; transnazionalak eta merkataritza libreak gizartearen eta ingurumenean dituen eragina salatzen karabana, ToxicTour izenekoa; Erdialdeko Amerikako Caravana Migrante, eta Caravana de Madres, desagertutako migratzaileen karabana.

Jardunaldia eskupelota erakustaldi batez amaitu zan Arteko frontoian.



IGORRE

Udalak eta parrokiak lagapena sinatu dabe oinbidea luzatuteko**Erredakzioa**

Illart Gumuzio Igorreko alkateak eta Jose Mari Kortazar abadeak lagapen hitzarmena sinatu eben urtailaren 28an. Hitzarmen honengaz parrokiak, lur saila emoten deutso herriari gasolindegia parrean dagoan oinbidea luzatuteko.

Parrokiako pastoral batzordeak 2017an onartu eban lur sail hori emotea.

Eslipena abenduan egin zan eta Bizkaiko Foru Aldundiak ipinitako diru partida batez egingo dira lanak. Zezeilean zehar oinbideko obrak hastea aurreikusita dago.

ZEBERIO

Bideak konpondu eta ondarea errekuperetako diru partidak**Erredakzioa**

Urtilaren 31n onartu ziran 2020rako kontuak Zeberion, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Aurten Udalak 1.485.518 euro kudeatuko ditu, igaz baino 10.000 gehiago.

la urtero lez, auzobideak eroango dabez inbersinoetako diru partidarik handiena (123.000 euro). Izan be, Udalak 45 kilometro bide eta auzobide propioak daukaz, Foru Aldundiakoak ez diranak. Beste diru partida garrantzitsu bat, Kultur Etxeko teiltua konponduteko izango da (35.000 euro), itoginak dagoz eta. Ezusteko bat izan da eta dirua da zibuetan aterpe bat ipinteko pentsauta egoana. Baina, Kultur Etxeko teiltuak lehentasuna dauka.

Seguridadea hobetuteko, guraso batzuek holan eskatuta, udaletxe ostean errekuera emoten dauan barandea aldatuko dabe.

Memoria historikoagaz loturea daukien lekuak errekuperetan jarraituko dabe Zeberion. "Aurreko urteetan, Burdin Hesian errekupe- rau genduan metrailadore habia bat Upon; karabi bat be bai; baita, iturria eta garbileku bat be, 1.765 urtekoa". Aurten, karabia barrutik garbitu eta hutsitu eta zubi bi txukundu gura dabez: Artzubi eta Olabarriko zubiak, hain zuzen be.

EH Bilduk kontrako botoa

EH Bilduk kontrako botoa emon eban, Roberto Calleja zinegotziaren arabera, alde batetik "aurrekontuak eginda egozalako, ez egoalako aldatetako egiteko aukerarik" eta bestetik ogasun batzordean "alkateak izandako jarkereagaitik".

Aurrekontu horrean ez dirala ordezkututa sentiduten be esan eban EH Bildukoak.

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

Kili-Kili
Ampo eta Puzitza

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tf: 94 631 43 81

BEDIA

Forvasa enpresako beharginak grebakaz jarraituten dabe



Erredakzioa

Bediako Forvasa (Forjas Unidas Vascas) enpresako zuzendaritzak Forvasarentzat hartzekodunen lehiaketea eskatzeko asmoa ebaluatu beharginak jakin arazo ostean, honenek, Forvasaren bideragarritasunaren eta euren enpleguen defentsan, zezeilean, astean egun baten greba egitea ebatzi eben urtailaren 20an egindako asanbladan.

Urtailaren 10, 14, 16, 23 eta 24an be greba egin eben, enpreseari gardentasuna eta bideragarritasun plan bat eta atzeratutako soldatak ordaintzeko eskatzeko. Izan be, LAB sindikatuaren arabera, beharginak ez dabe ulertuten zelan atzen urteotan, 2019ko atzen hilabeteak arte, lan-kargak eta fakturazinoak gora egin daben enpresa baten, gaur insolentzia egoeran egotea. Hori dala-eta, gardentasuna eskatzen deusie enpreseari eta euren lanpostu eta lan-baldintzen defentsan izango dirala jakinarazo dabe.

ARRATIA

Galesko irakasle talde batek Arratiako hainbat ikastetxe eta gizarte eragile bisitatu ditu

Gales osoko eskola zuzendari talde bat egon zan EAEn urtailaren 19tik 24ra, hizkuntza gitxitu batek nortasunean, lurralde baten garapenean eta ondare kulturean daukan garrantzia landuteko.

Erredakzioa

Aste horretan, eskolak, ikastolak, Lanbide Heziketako ikastetxeak eta beste hainbat hezkuntza zentro bisitatu ebezan; tartean, Arratia Institutua eta Areatza eta Zeberioko eskolak. Eta ezetu ebezan baita be, Arratian garapenagaz eta kultureagaz lotura daukien eragile eta erakundeak; Arratiako Udalen Mankomunitatea, udalak, Errota Fundazioa eta, BEGITU, besteak beste.

Zeberioko Jasone Aldekoa Berritzeguneko Hizkuntza Normalkuntzako Arratia-Nerbioiko arduradunak egin ebazan anfitrioi lanak. Urtailaren 23an, Berritzegunekoak, Igorreko Arratia Institutuan azaldu ebazan euskerearen erabilera bultzatzeko Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Saileko estrategiak eta baliabideak, 1982tik hasita gaur egunera arte. Hau da, eskolako hizkuntza ereduak, planak, materialak, programak eta lekuko erakunde eta alkarleak eskolak egiten daben alkarlana.

Galesko eskola zuzendariak Galesko Gobernuagaz behar egi-

ten dauan Hezkuntzako Lidergo Akademia Nazionaleko (National Academy of Educational Leadership) ordezkariak dira gurera etorritako eskola zuzendariak, eta egindako bisitearen ostean, aztertu egin beharko dabe hemen erabilitako metodoak eta planak erabilgarri ete diran Galesko eskola-umeentzat.

Baikor agertu da Kevin Law, Romilly Primary School-eko zuzendaria. Izan be, Galesko hizkuntza bultzatzeko erronkearen aurrean, euskerea bultzatzeko erronkeagaz antzekotasun asko dagozala uste dau. "Antzekotasunak handiak dira, bai eskolai jagokienean baita familia eta inguruneari jagokienean be. Eta erronkak be antzekoak dira hemen eta han: umeen jarkerak antzekoak dira, gurasoen jarkerak be bai, irakasleen garapen profesionala eta finantza baliabideak lortzea ezinbestekoa... Eta jakina! irakasleak motibatuta dagoz umei onena emateko" azaldu deutso BEGITURI Lawk.

Hezkuntzako Lidergo Akademiako ordezkariak, hainbat lu-



Galesko irakasleak Areatzako Errotako lokalean.

rraldetako estrategia eta planak aztertzen dabilz. Ez dira bakarrik EAEn egon euskerearen erabile-arearen bilakaerearen barri jakiten, Kanadan eta hizkuntza gitxitua bultzatzen lan egindako beste lurralde batzuetan be egon dira.

Eskolea lekuko alkarleak alkarlanean

Harridurea sortu eban Galesko irakasleen artean, EAEn izandako eskolearen euskalduntzeak. Izan be, Jasone Aldekoak emondako datuen arabera, 1982an, euskerea hizkuntza ofiziala egin zanean eskolan, irakasleen %5 baino ez zan sentiduten bere irakasgaia euskeraz emateko gai. Gaur egun %100 dira. Irale programeari esker, lortu dabe askok gaitasun hori.

Euskalduntze horretan eskola-umeen familiak be izan dabe zeresana. Izan be, umeak eskolan izango daben hezkuntza eredu gurasoak ebazten dabe, eta gurasoen eskaerak be euskerearen aldeko bilakaera nabarmena izan dau 1982-83 ikasturtetik hona. Orduan, D eredu; hau da, eus-

kerazko eredu matrikulau ziran eskola-umeak %20ra ez ziran ailegetan eta 2006-2007 ikasturtean, %74 ziran.

Baina eskolea euskalduntzea, beharrezkoa bai, baina ez da nahikoa herri edo eskualde bat euskalduntzeko. "Hizkuntza baten erabilera, lau aldagaik ditue pisu gehien: harreman sare baten dagoan euskaldunen densidadeak, euskera jakintza mailak, herriko euskaldunen densidadeak eta euskera eta euskal kultureagazko interesa, motibazioa eta jarkeak. Eta euretako bakar baten dauka eragina eskoleak, euskerearen jakintza mailan" azaldu eban Berritzeguneko arduradunak.

Hori dala eta, konturatuta erabilera bultzatzeko, eskoleaz gainera, familian eta inguruan eragin behar dala, 1990eko hamarkadan, eskolea hasi zan herriko alkarle eta erakundeak alkarlanean. 2000tik aurrera, soziolinguistika matematikoan oinarritutako diagnostikoa egin eta plana eta ebaluazioa egiten dira lau urtetik behin. Euskal Kurrikulua be landuten hasi ziran.

ZEANURI

San Balendin jaia Eleizondon, hilaren 16an

62 urte beteko dauz artea neurtzearen tradizioak.

Jon Urutxurtu

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenaz ezetuten dan ermitearen inguruan. San Balendin egunaren osteko domekan, zezeilaren 16an. Aurten artea neurtzen daben 62. urtea izango da.

Jaia ospatzeko, 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokiari; meza ostean, San Ba-

lendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurtetari ekingo deusie. Neurtetearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Gabriel Herrerosak, datorren urtekoari Xabier Intxaurragari, agiri liburua eta ermitearen giltza pasatuko deusaz. Ostean, barauskarria, urdaia, pamitxea eta ardaoa, bananduko da bertara hurreratzen diranen artean. Ekin-

tza horreek herriko txistularien eta Arkaitz Estiballes bertsolariaren kantuen artean egingo ditue.

Egitarau honetan aitagarria da oin dala hirurogeta bi urte eleizondotarrak hasi eben eta, aldi baten bertan behera itxita egon ostean, oin dala hamalau urte berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintza: Piedadeko artearen neurtetea.

Artearen neurtetea

Pedro Lejarza, eleizondotarraren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkoa da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, gonbit egunean, batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan

afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baseriko Zeferino Lejarreta zana arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jaia amaitutzat emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurteten zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurtetea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18.*

Tradizio hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurtetea, Kandido Intxaurraga zanak egin eban 1999an; papertxo baten zera idatzi eban: "Piedadeko artea. 99-2-14 a 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoak hasitako ohitua ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrak, eta Pedro Lejarzak

dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurtetea hasi zanetik 50 urte beteten ziran, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan daian. Gainera, zugatzari neurria hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta aurdatu izan zan 2105era arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta 2016an Gregorioren lekukoa Igor Intxaurraga eleizondotarrak hartu eban. Aurrerantzean bera izango da neurtzailea".

Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 189,70 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran, 2018an baino 0,50 cm gehiago.

JOSEBA RIOS

Barandiaran ez egoan oker

Dimako Axlorkobako aztarnategian Jose Migel Barandiaranek topautako giza fosilak, barrero aztertu ditu Asier Gomezek eta Joseba Riosek zuzendutako ikerketa talde batek. Fosil batzuk sailkatu barik egozan eta horreen artean, Neanderthalen hiru hagin eta buruhazur zati bat topatu ditue. Neanderthaltzat jotzen ziran beste hiru hagin barriz, Sapiens-enak dirala be frogatu dabe.

Axlorkobako, Neanderthalen bizimodua jakiteko aztarnategi garrantzitsuenetakoa da, sano sekuentzia arkeologiko luzea daukalako eta Neanderthalen kultura desbardinak ikertu daitezke sekuentzia horretan.

Joseba Rios Espainiako Giza Eboluzioaren Zentroko ikerlaria da eta Atapuercan (Burgos) egiten dau behar. Dimara hurreratu zan, atzenengo aurkikuntzen garrantziaz BEGITUGAZ berba egiteko.



Joseba Rios.

Argazkia: Manuela Sánchez.

Erredakzioa

Aspaldi topatu ebazan Barandiaranek Neanderthalen fosilak Axlorkoban. Zergatik Axlorkoban eta zer topatu eban bertan?

Barandiaranek 1932an topatu eban Axlorkoban. Espedizio bat egin eban Baltzolaran eta Axlorkobako aztarnategia topatu eta industeko itxi eban. Beti egon gara pentsetan ea zergatik joan ete zan Barandiaran hara. Neanderthalak ziran bere interesa. Nik uste dot Lezetxikin (Arrasate) egoanean industen, Axlorkoban buruan eta orduan Axlorkobara joan zala industeketa egin zan, 1967tik 1974ra. Kanpaina asko egin ebazan jente gitxigaz eta medio gitxigaz, baina industeketa nahiko handia egin eban Axlorkoban.

Gauze da, industeketa horretan berak sekuentzia arkeologiko oso luzea identifikatu ebala. Hainbat mailatan egozan Neanderthalak

ixitako errastuak: tresnak, animalien hazurrak, eta abar. Horregaitik da hain garrantzitsua Axlorkoban ez bakarrik Euskal Herrian, mundu mailan be bai. Hor ikusten dira Neanderthalen bizimoduaren aldaketak denporea joan ahala eta zelango zan euren bizimodua.

Zelan egoan Axlorkoban Barandiaranek topatu ebanean?

Berak topatu ebanean kobea erdi hustuta egoan. Kobea ahuntzak edo ardiak gordeteko erabilia izan zan eta gerra zibilean be erabili ebela pentsetan eban Barandiaranek, ze akordetan zan zelan topatu eban 1932an, eta gero 1964an aldaketak ikusi ebazan.

Izan be, aztarnategiaren parte nahiko handia falta zan, guztiz hustuta egoan, modu ilegalean hustuta, esan daikegu. Barandiaranek sedimentuz beteta eta ondo konserbaturako leku bat topatu eban; gero aldapa txiki bat beherantza eta beste sedimentu batzuk sano mobiduta. Lehe-

nengo urtean mobiduta egoana garbitu eban, mobidutakoa kendu, ondo definitu eta trintxera bat egin hasi zan. Trintxera bat da sakonean industen dan zenbait laukitxo, ikusteko segida estratigrafikoa zelangoa dan. Eta hori industen egoanean, txoko baten, albo baten, topatu ebazan lehenengo giza hazurrak: hagin batzuk eta matrail hazur zati bat berbarako.

Hagin horreek dira oin Neanderthalenak ez dirala frogatu diranak?

Bai. Baina Barandiaranek diarioan zera idatzi eban: hazur honek lur arinean topatu dira. Normalean aztarnategi arkeologikoetan eta oso zaharrak baldin badira, fosilak ez dira egoten lur arinean, lur arinean badagoz esan gura dau mobiduta egon dala. Eta berak hori ipini eban apropos: lur arinean topatu. Baina bere diarioa inork ez dau konsultatu guk konsultatu dogun arte.

Fundación Barandiaranek eukan diarioa; Barandiaranen informazio pribadu guztia dauka eta. Lan ikaragarria egin dabe Fundazinoakoak dana digitalizetan. Eta gu joan ginan hara, artxibo digitalak ikusten, eta deskripzio hori ikusi genduan.

Horregaitik, barrero ikertu doguz hagin horreek teknika barriakaz. Eta datu guztiak esaten eban Neanderthalenak ez zirala.

Noz hasi zinien ikerketa hori egiten? Zu eta Asier Gomez EHUKo ikertzailea batera hasi zinien?

Ikerketea hasi genduan oin dala hiru urte inguru. Ni aspalditik egon naz berrikusten Barandiaranen bilduma litikoa eta Asier oin dala 3 edo 4 urte hasi zan faunaren aztarnak berrikusten. Asier Gomez Olivenzak zuzendu dau proiektua. Bera paleoantropologoa da eta lan egiten dau Euskal Herriko Unibertsitatean eta Atapuercako taldean dago. Hasi zan errebisetan animalien hazurren

bildumea museoan.

Izan be, Barandiaranek atera ebazan milaka hazur zati eta asko zehaztu barik egozan oin-dino boltsa baten. Identifikazio horretan, topatu eban esne hagin bat Neanderthalarena. Eta hori kontestu seguru batetik dator. Guztiak begiratu, eta topatu doguz beste hagin bi eta buruhazur zati bat. Orduan daukaguz hiru hagin eta buruhazur zati bat. Eta oso interesgarria da ze agertzen dira maila desbardinetan.

Kaskezurrarena oso polita da, ze bakarrik haginak geunkazan eta hau da Arratian topatu dan Neanderthalen lehenengo buruhazur zatia. Eta oso interesgarria ze Barandiaranek bere diarioan zera idatzi eban: "buruhazur zatia, homo neanderthal?" galdera ikurragaz.

Informazio hori galdu egin zan eta guk konsultatu egin dogunean, arrai! Barandiaranek esaten eban posiblea zala Neanderthal baten buruhazurra izatea.

Hori be oso polita izan da, ze guk askotan ikusi izan dogu modu lar kritikoa Barandiaranen lana, orduan hona metodologia asko modernizatu dalako. Baina gero ikusten dozu, bere diariotan, dana oso ondo hartuta dagoala eta deskripzio oso politak eta identifikazio ederrak egin ebazala. Horregaitik nik nire pentsamentua aldatu egin dot.

Neanderthalen haginak sasoi desbardinetakoa dira, orduan. Axlorkoban Neanderthalen kultura desbardinak agertzen dira. Zeintzuk ziran kultura honeek?

Hori gabiz ikertzen, ez bakarrik Axlorkobako materialakaz, beste leku batzuetakoakaz be bai.

Gaur egun badakigu Neanderthalak sortzean dirala Europan aurretik egoan populazio batek, Atapuercan Hazurren Leizean (Sima de los Huesos) agertzen dana. Horrek, gitxi gorabehera, oin dala 200.000 urtetik 220.000

"Kaskezurrarena oso polita da, ze bakarrik haginak geunkazan eta hau da Arratian topatu dan Neanderthalen lehenengo buruhazur zatia. Eta oso interesgarria ze Barandiaranek bere diarioan zera idatzi eban: "buruhazur zatia, homo neanderthal?" galdera ikurragaz"

urte arte irauten dau. Populazino hori doa apurka-apurka aldatzen, hori da eboluzino normala. Pre-neanderthalak dira.

Neanderthalak gitxi gorabehara oin dala 200.000 urtetik aurrera dagoz. Euren kultureagaz, erdi paleolitoan kokatzen doguz. Gaur egun erdi paleolito zaharra eta erdi paleolito barria be desbardintatzen doguz. Zaharra ailegetan da 100.000 urtera eta barria 45.000 urtera. Hortik aurrera, Neanderthalen beste industria edo beste kultura bat agertzen da, Chatelperron aldikoa. Hauxe oso aztarnategi gitxitan agertzen da gurean, Labeko koban (G), Ekainen (G) eta Aranbaltzan (B). Gitxi irauten dau kultura horrek eta 40.000 urtetan, Neanderthalak guztiz desagertuta dagoz. Hortik aurrera gure espezieak okupauko dau lurralde osoa.

Baina Neanderthalen gainean berba egiten dogunean, 160.000 urteri buruz gabiz berba egiten. Urte piloa da. Askotan pentsau izan da urte horreetan guztietan Neanderthalak bizimodu bardin-tsua egiten jarraituten ebela. Baina ez da holan.

Giro ekologiko oso desbar-

dinetan bizi izan ziran. Eta ez nabil esaten Europa mailan, nabil esaten hementxe bertan, Arratiako bailaran. Adibidez, oin dala 115.000 urte hasi zan glaziazinoarteko sasoi bat. Lehen egoana glaziazino sasoi zan, hotza, danok buruan daukagun hori. Baina glaziazinoarteko sasoi horretan temperatura eta klima piloa aldatu ziran. Temperatureak oso altuak ziran, Euskadi tropikala, gaur egungoak baino 5 gradu altuagoak. Eta agertu ziran makakoak, hamsterrak, eta gaur egun ez dagozan eta epoka glaziarretan be egon ez diran zenbait animalia eta landare.

Eta Neanderthalen kulturea desbardina izan zan sasoi desbardinetan...

Neanderthalak gai izan ziran aldaketa horreei egokitzeke. Kultura eta tresnak egiteke moduak aldatu ebezan. Eta hori Axlorren oso ondo ikusten da. Momentu batzuetan erabilten dabez inguruko arrokak euren tresnak egiteke; beste momentu batzuetan, kanpotik ekarritako arrokak... Momentu batzuetan batez be puntak eta ehizatzeke tresnak egiten ditue, beste momentu batzuetan animalien narrua-

ri gantza kentzeako eta erropak egiteke tresnak egiten ditue batik bat. Aldaketa piloa dago. Tresnak ikusita, zelan antolatuten eben bizimodua eta ze teknologia eukien jakin leikegu. Aldaketa asko ikusten dira.

Askotan aldaketa horreek ez


dira oso argiak izaten. Baina Axlorren bai, oso argiak dira.

Neanderthal eta Sapiens-en arteko nahasterik gertatu zan Arratian?

Ez dot uste. Oin dala gitxi, pentsetan genduan Axlorren

baegoala erdi paleolitoko Neanderthalen kultura nahiko gaztea; hau da asko iraun ebana, oin dala 40.000 urte arte. Baegoalako datazino bat kokatzen ebazana maila batzuk hor. Baina igaz hartu genduzan Barandiaranen bildumatik zenbait hazur eta aztarna, barriro datatzeko eta ikusteko ea egia zan azken erdi paleolitoan Neanderthalak egozala. Eta lortutako emaitzak esaten dabe ezetz. Aurreko datazino txarto egoala kontaminazino batengaitik eta Axlorreko azken mailak, Neanderthalen azken mailak, oin dala 50.000 urte baino zaharragoak dirala seguruenik. Ez daukagu data zehatzik baina hori ia seguru da. Eta Sapiens lehenak, oin dala 40.000 urte agertu ziran hemen. Beraz, ez dagoz batera momentu berean.

Neanderthal eta Sapiensen arteko koexistentziarik egotekotan Europako ekialde edo erdialdean izango zan. Edo dana Homo sapiensez beteta egoanean, Iberiar peninsularen hegoaldean akaso Neanderthal batzuek jarraitu eben. Baina hori frogatu barik dago. Oso tarte txikian egon ziran espezie biak batera European.



Buruazurra.

Argazkia: Asier Gomez-Olivencia.



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"

- * Euskal hezkuntza eredu berritzailea, hurbilekoa eta konprometitua.
- * Bertoko ekoizleen produktu eta sasoiak hornitutako jantoki zerbitzua.
- * Bus: Usansolo, Igorre, Lemoa, Zornotza.

0-18 urtera arte

matrikulazio epea:
Urtarrilaren 27tik
otsailaren 7ra.

ERRUGBIA

Gernika/Arratiko errugbi taldea Errioxako Domiberiagaz neurtuko da ligako datorren partiduan

Hamar partidu jokatu, seigarren da Gernika/Arratiko rugby taldea 15 puntugaz Rugbyko Euskal Ligako Senior 1 sailkapenean. Bertan, 9 talde dabilz lehian eta La Unica RT Iruñako taldea dago lidertzan 11 partidu jokatu, 45 puntugaz.



Gernika/Arratiko taldea Igorreko San Txisme errugbi zelaian.

Erredakzioa

Jokatutako atzenengo partidu biak galdu egin daz Gernika/Arratikok. Urtailaren 25ean, AVK Bera Bera RT B-ren kontra 16-10 galdu eban Donostian. Aurreko partidu be, galdu egin eban urtailaren 11n, etxean, Igorreko San Txisme zelaian La Unica RT A liderraren kontra 12-36. Ger-

nika eta Arratiko Zekorrek rugby taldeak batu ziranetik, etxean jokatu beharreko partiduak txandaka egiten dabez, Igorren eta Gernikan.

Hurrengo partidua, Domiberia R. C. Riojaren kontra jokatuko dau Gernikan, zezeilaren 8an, 16:00etan. Domiberia laugarren dago sailkapenean, 11 partidu jokatu ditu eta 35 puntu daukaz.

MENDIA

Ama Dablam mendiaren tontorra egin dabe Txikonek eta bere ekipoak

Urtilaren 25ean, Ama Dablam (6.858 m.) mendiaren tontorra egin eben Jonatan Garciak, Pasang Sherpak, Cheppal Sherpak, Kalden Sherpak eta Alex Txikonek eta Everestera joan aurretik egun batzuetako atsedendia hartu dabe mendi magalean egun eguzkitsu eta haizetsuez gozatuteko.

Erredakzioa

Izan be, Ama Dablam-era igoera gogorra izan zan eta indarbarritzea derrigorrezkoa dala dino Txikonek, Everestera igoereari ekiteko, edo, haizea baretu ezker, tontorrera igo ez diran espedizinokideakaz barriro be igon ahal izateko.

Everesteko Behe Kanpalekua montautu eta horniduta dago eta sukaldaria eta beste batzuk, urtai-

laren 30ean abiatu ziran harantza.

Dokumentala

Alvaro Sanz *La cumbre es el*



Alex Txikon.

camino dokumentala grabetan dago. Han desgaitasuna daukien Amiab alkarteko Juan Alejandro Martinez, José Urbano eta Jesus Bermudezek eta euren begiraleak, Ama Dablameko Behe Kanpalekutik Everesteko Behe Kanpalekura egindako ibilbidea jasoten dau. Amiab, Gizarte Ekonomiako Elkarte Nazional bat da eta desgaitasunen bat daukien personen inklusioan egiten dau behar.

PANDA RALLYE

Desert Trophy Panda rallye solidarioran parte hartuko dabe hainbat arratiarrek

Erredakzioa

Panda markako kotxeak, 3.000 kilometro inguru egin behar izango ditue Saharako basamortuan, zezeilaren 15etik 23ra arte, sei etapatan. Atzenengo etapea egun bikoia izango da. Partaideak Saharako eskoletarako material didaktikoa eroango dabe, beste gauza batzuen artean. Lemoa eta Igorretik kotxe bana eta Arteatik bi abiatuko dira basamorturantz.

Arteako Urdax Barrenetxeak eta Arkaitz Maguregik lehenengoz hartuko dabe parte rallye honetan. "Guri mekanika mundua gustetan jaku eta geuk preparau dogu kotxea. Geuk eta gure lagunak" dino Barrenetxeak. Helburua da, hemendik urten, lasterketea amaitutea eta barriro bueltetea.

Granadan batuko dira 90 kotxe, dokumentazioa entregau eta gau horretan ferrya hartuko dabe Algecirasen. Hurrengo egunean izango da

lehenengo etapea Marokon, "edurretan eta gaubez". Atlas inguruan etapa bi egin eta gero basamortura joango dira. Etapa maratoia izango da azkena: egun bi asistentzia barik.





ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net



www.alkizabal.net









Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

HERRI KIROLAK

Harriti giza proba taldea partaide bila dabil

Erredakzioa

Harriti taldekoak martitzenetan batzean dira 20:00etan, Arteako Ekomuseoko probalekuan, giza probetarako entrenetako. Probetan, zortzi andrak 500 kiloko harriari egiten deustie tira ahalik

eta distantziarik luzeena egiteko denpora jakin baten. Aurten, taldea handitu gura dabe eta horretarako partaide bila dabilz. Harriti, 2013an sortu zan eta giza probetako Bizkaiko lehenengo andra taldea da. Andra taldean kirola egitea eta giro ona eskaintzen dabe.



PELOTEA

Markel Egaña eta Oier Hormaetxe txapeldun Aretan

Erredakzioa



Urtailaren 24an jokatu zan Aretan (Laudio) Aretako eskupelotako txapelketearen finala. Gazte mailan, Arratiako hiru pelotari sartu ziran finalean, Zeanuriko Anton Erkiaga, Igorreko Mikel Etxebarria eta Dimako Markel Egaña. Dimakoa eta Igorrekoa Lemoako klubean dagoz aurten. Erkiaga, aurreko partidu baten lesionau zan eta ezin izan eban finala jokatu, bere orde z Aretako Alonsok jokatu eban. Lezamako klubeko Oier Hormaetxek eta Lemoako klubeko Markel Egañak 22-13 irabazi eutseen Aretako Alonso eta Lemoako klubeko Mikel Etxebarria igorreztarrari.

AZKOREA

Irati Astondoa Maika Aristegiren kontra neurtuko da finalerako txartela lortu guran

Zezeilaren 9an, Beasainen izango da norgehiagokea.

Erredakzioa

Urtilaren 5ean hasi zan Urrezko Aizkolari Emakumeen Banakako Txapelketea eta liga fasean dagoz oin. Lau azkolarik hartzean dabe parte; Irati Astondoa zeanuriztarrak, Maika Ariztegik, Nerea Sorondok eta Itxaso Onsalok. Zezeilaren 9an, Ariztegi irabazi ezker, Astondoa finalera pasauko da. Finala martiaren 8an izango da Azpeitian.

Zeanuriztarrak, irabazi egin e-

tsan Itxaso Onsalori urtilaren 12an Beizaman. Astondoak 7 minutu eta 9 segundo behar izan ebazan lanak amaituteko; Onsalok barriz, 8 minutu eta 8 segundo.

Bigarren aurrez aurrekoa ez jakon hain ondo joan; izan be, galdu egin eban Nerea Sorondoren kontra Aian urtilaren 19an. Beratarak 5 minutu eta 43 segundotan gelditu eban erlojua; arratiarrak barriz, 7 minutu eta 28 segundo behar izan ebazan lanak amaituteko.



Astondoa eta Onsalok.

Matrikula garaia

Zezeilaren 7ra arte.
Emon izena Arratiako ikastetxeetan.

Onabian harri ikastetxeak
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



IKUSKIZUNA

Etzanderak jantza taldea Igorreko Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Zezeilaren 15ean, 20:00etan, Etzanderak Zeanuriko jantza taldeak *Zantigitu guztien gainetik* jantzea, musikea eta bertsoak batzean dituan ikuskizuna eskainiko dau Lasarte Aretoan.

Ikuskizunak, sorginai, hau da, sasoi bateko andra independiente, jakintsu eta errebeldeai ome-

naldia egin gura deitso. Izan be, ikuskizun honegaz, sorgin izatea leporatuta, bazkerkeka, tratu txarrak eta kasu batzuetan heriotzea be sufridu eben andrak gogora ekarri gura dabez Etzanderak taldekoak. "Orduko denporetan hainbeste gauzari aurre egin eta bidea zabalduteko indarra erakutsi eben andrai omenalditxo bat egiteko".



Etzanderak taldekoak Zeanurin bagilean egin eben emonaldian.
Argazkia: Miren Idigoras.

LEHIAKETEAK

Umeentzako Lemoako Ipuin Lehiaketaren VIII. edizinoa martxan

Erredakzioa

Zezeilaren 17tik martiaren 6ra, Lemoan bizi edo ikasten dabena 18 urte baino gutxiagoak aurkeztu lekiez euren lanak Udala Liburutegian Lemoako Haur eta Gazteen VIII. Ipuin Lehiaketan

parte hartzeako.

Aurtengo edizino honetan, Lemoako euskerearen maskota dan Harrotxu estralurtar urdina, izango da ipuinen protagonistea.

Aurrekoetan legez, edadearen arabera bost maila egongo dira eta oingoan maila bakotzak gai bat izango dau aurretik zehaztuta. Holan, LHko 1. eta 2. mailakoak, "Harrotxu bizikletan" hartuko dabe gaitzat, 3. eta 4. mailakoak, "Harrotxu ausarta da"; 5. eta 6. mailakoak, "Harrotxu dendara doa"; DBH 1. eta 2. mailakoak "Harrotxuren amona" eta DBH 3. eta 4. mailakoak, "Harrotxu Lemoatx ezagutzen".

Sariak

Sari banaketea apirilaren 20an, 17:30ean, izango da liburutegian. Saria material didaktikoa izango da eta maila bakotxean hiru sari egongo dira. Parte hartzaile guztiak diploma bana jasoko dabe eta saritutako ipuinak Lemoako Udaleko webgunean argitaratuko dira.

ALKARRIZKETEAK

Karmelo Usategi: "Odisea diskoa gure odisea personala eta txikitxo da"

2015ean sortu zan arren, 2019ko amaieran kaleratu eban Raust!ek bere lehenengo disko luzea, *Odisea*. Ia 40 minutuko diskoak 8 abesti ditu, eta Raust!ek egindako eboluzinoa erakusten dau. Taldekideak urte bi pasatxo emon dabe diskoa sortzeako lanetan.

Erredakzioa

Atera barri dozue zuen lehenengo disko luzea.

Bai, abenduaren 20an, atera zan. Autoekoiztua da, geuk egin dogu dana. Berrizen grabau dogu Lorentzo Records-en eta diseinurako Imanol Molinuevo bilbotarragaz kontau dogu.

Diskoak 8 abesti daukaz eta danerik dago: abesti luzeak eta abesti laburtxoak, oso zuzenak eta oso direktoak. *Odisea* izena ipini geuntsan disko hau gure bidaia izan dalako. Raust! osotuten dogun bost kideak urte bi pasatxo daroaguz disko honetan lan egiten. Taldea 2015ean sortu zan baina aldaketak egon dira eta taldea egonkortu zanean hasi ginan diskoan lan egiten.

Odisea, gure odisea personala eta txikitxo da.

Zeri buruz da? Badauka gairen bat ildotzat hartu dozuena?

Ez. Baina esan lei kanta guztiak egoera sozialaren gainean egiten dabela berba. Abesti bakan batzuk, apur bat introspektiboak dira. Orokorrean gure gaiak sozialak dira, protesta egitekoak, pentsetan ipintekoak. Baina hainbat gai dagoz: Errefujiaduak, Aske maite aske bizi slogan-ari bueltatxo bat, gerrak... egungo gaiak.

Abesti batzuk oso barriak dira eta beste batzuk jo egin doguz zuzenekoetan. Orduan nahaste bat egin dogu, aurkezpen gutun bat izango balitz moduan, "hau da Raust! eta hauxe da egiten dogu-

na" esateko.

Ez da kaleratu dozuen lehen lana...

Ez, baina lehenengo disko luzea da. Aurretik egin genduan maketatxo bat lau abestigaz. Beste baterajole bat egoan orduan, disko hori amaitu eta gitxira Unai Luzuriaga sartu zan eta orduntxetik hona lanean gabiz eta hori da lan horren frutua.

Hogei urte Txarraskan eta Raust! maketea atera doguz aurretik. Txarraska, Basauriko Gaztetxeak, 20 urte egin dauz eta proposatu euskuen 20. urteurrenerako abesti bat prestatzea. Izan be, guk han enaietan dogu eta esan leike haxe dala gure kuarter jenerala. *Ametzak sortzen 20 urte Txarraskan* da horretarako egin genduan abestia. Ez da disko bat, kanta bakarra da.

Maketan, lehen esandako moduan 4 kanta dagoz. Eta *Odisea* abenduan atera genduan diskoa da gure lehenengo disko luzea.

Ze musika estilo da?

Egia esan, musika estiloa dala-eta, gu ez gara sartuten etiketetan. Gustetan jaku gure musikea egitea: rock-a, metala, rap-a, pop-a... danerik dago. Baina egia da azkenengo hau heavy-a edo heavy-rock antzekoa geratu jakula. Ez dakigu oso ondo zelan definitu, nortasun jariokorra daukala esango neuke, influentzia asko dagoz eta erraz eta gustura entzuten da diskoa.

Zu hasikeratik zagoz taldean? Kontau taldearen historia.

Raust! sortu zan apur bat kasualidadez. 2015ean ni Hizkuntza Eskolan nengoan, italiara ikasten eta

Asier bajujolea be bertan egoan. Egun baten, Asierrek esan eustan, "Deustuko Gazte Lokalean bersino gaua egiten dabe. Zergaitik ez gara batzean eta egiten doguz lau bersino hor joteko?". Halaxe egin genduan eta giro sano ona egon zan. Orduan gengoan, Asier Salazar, Iñigo Torres eta Aitor de la Pera eta neu, Karmelo Usategi. Raust!en barruan aldatzen joan dan figura izan da baterajolea. Orduan egon zan Bilboko tipo bat gero atzerria joan zana biziten, "Cipote". Gero etorri zan Iñigo Benito. Iñigo Benitogaz grabau zan maketea eta gero horren ostean, Unai Luzuriaga batu jakun baterian eta ordutik hona bostok gabiz lanean.

Zeintzuk dira zuen hurrengo proiektuak? Zelan planteetan dozue 2020 hau?

Logikoa dan moduan, ointxe atera dogu diskoa eta jarraipena emon gura deusagu kontzertuakaz. Kontzertuak dira gure helburu nagusia.

Laster baten, seguruenik datorren astean (alkarrizketa hau urtailaren 23an egin zan) aurkeztuko dogu gure lehenengo bideoklipa, *Rock and roll*, eta gero espero dogu udabarrirantz aurkeztutea bigarren bideoklip bat.

Taldeko danak langileak gara, eta Raust!en jarraipenak lan handia eskatzen dau. Ez gara bakarrik musikariak, bakoitxak bere lana dauka. Helburua epe laburrean, kontzertuak jotea eta taldea ezetuten emotea da. Ahal bada Bizkaitik kanpo be bai. Mugak zabaldu gura doguz eta.



Karmelo Usategi argazkiaren erdian.



KONTZERTUA

Lendakaris Muertos punk taldearen kontzertua Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Igorreko Kiñu Gaztetxeak 21:30ean zabalduko dauz ateak zezeilaren 8an Lendakaris Muertos taldearen kontzerturako, nahiz eta kontzertua ordubete beranduagorako aurreikusita egon. Sarrerak Igorreko Axular Herriko Tabernan eta www.lendakaris.com webgunean dagoz salgai.

Lendakaris Muertos taldea 2004an sortu zan Iruñean. Punk ortodoxoa egiten dabe eta euren abestietan kritika sozial eta politikoa egiten dabe umorez. Zazpi disko ditue katean, azkena *Podran cortar la droga, pero no la primavera*, 2017an argitaratu zan.



ZINEA


AEBko errazismoaren gaineko pelikulea Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Zezeilaren 6an, iluntzeko 20:00etan, *I Am Not Your Negro* Raoul Peck-en pelikula dokumentala ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan.

1979an James Baldwin idazle eta ekintzaile afroamerikarra *Remember This House* liburua hasi zan idazten eta liburu horretan oinarritzen da dokumentala.

Martin Luther King, Malcolm X eta Medgar Evers eraildako ekintzaileen historiari hasi eta afroamerikarrek eskubideen alde egindako burrukea kontetan dau Baldwin-en liburuak. Liburua amaitu barik hil zan Baldwin eta Raoul Peck-ek, libururako oharra hartu, artxiboko irudiak bildu eta pelikula bat baino harago, ekin-tzarako deia be badan dokumental hau egin eban 2016an.



ERAKUSKETEAK

Ganzabal Mendi Taldearen argazki erakusketea zezeilean

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldearen *Mendirik mendi* argazki erakusketea egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan, zezeilaren 28ra arte. Ikusi ahal izango diran argazkiak, Ganzabal Mendi Taldeak 2019 urtean antolatutako argazki lehiaketan parte

hartu eben taldeko bazkideen argazkiak dira.

Lehiaketak gai bi izaten ditu; Ganzabal Mendi Taldeko ekintzak eta Natura eta mendia.

Argazki lehiaketaren helburua jenteari argazkiak ateraten animetea da, bai Ganzabaleko urtekeretan edo euren kabuz mendiaz edo naturaz gozaten dabenean.

DIMETALFEST

Rat-Zinger eta Ehun Kilo Dimetalfesteko seigarren edizinoan izango dira

Fetitxe, Crucifucked eta Conflict Noisek be joko dabela iragarri dabe.

Erredakzioa

Rat-Zinger Bilboko punk rock taldeak, aurten Dimetalfesten bai ala bai izan behar dala adierazo dau. Dimetalfest, metal musikearen Dimako jaialdia, urri lehenengoaren 25ean eta 26an izango da.

Rat-Zinger, *Cartas al Vaticano* (2010), *Crónicas de la destrucción* (2012), *Rock'n'Roll para hijos de perra* (2014), *Larga vida al infierno* (2016) eta *Santa Calavera* (2018) diskoen sortzaileak, baita *No habrá piedad para nadie 1* (2015) eta *2* (2019) bildumena, oin arte jaialdira atxiki diran taldeak bat egingo dabe. Oin arte Dimetalfest-en joko dabela iragarri dabenak honek dira: Soziedad Alkoholika (Gasteizko crossoverra), Killus (Vila-Realeko glam-dark/metal industrial), Cobra (Euskal Herriko rock metala), Eraso! (Zarautzeko rock emo metala), Etorkizun Beltza (Gernikako heavy metala), Elizabeltz (Bermeoko rock/metala), Sealed Room (Busturialdeko rock metala), Cult of Misery (Bilboko crust/death metala), Mutilated Judge (Arratiako grindcorea) eta Bullets of Misery (Busturialdeko rural deatha).

Gainera, Bilboko Zorrotza auzoko Conflict Noise taldearen izena be jakitera emon dabe antolatzaileak, baita Fetitxe Arri-

gorriagako stoner laukotearena eta Crucifucked crust/death&roll bilbotar bereziena be.

Seigarren edizino honetan 36 talde inguru izango dira, jardunaldi bitan bananduta. Antolatzaileak, Dimetaleroak Kultur Elkartek, 1990eko hamarkadako Euskal Herriko talde mitikoenetako baten baiezkoa be lortu dau, Elgoibarko Ehun Kilo taldearena, hain zuzen be. Jon Zabala (abotsa), Jon Iturrino (gitarra), Jabi Bergara (gitarra), Kristian Etxabe (bajua) eta Camilo Fernándezek (bateria) osotuten dabe taldea. Eurak izan ziran heavy metala euskeraz egiten ausartu ziran lehenengo taldeetako bat, *Euli artean*, (Oihuka, 1994) eta *Esaiek...* (Oihuka, 1995) lanetan ikusi daiteken moduan. 1997an agurtu ondoren, 2017ko garagarri-lean barriro ekin eutsien bideari urte haretan Nafarroako Sakanan egin zan Hatortxu Rocken, euskal pre-soen eskubideen aldeko jaialdian.



DUNBA

Areatzako eskolako elektrizidade erronka

Areatzako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak


5. eta 6. mailako ikasleak, energia konsumoa murrizteko erronka bat proposatu eben eskola mailan.

Areatza eskolako LH3ko ikasleak energia proiektua landu eben. Honeri lotuta elektrizidade fakturak aztertu ebezan eta konturatu ziran elektrizidade konsumoa oso altua zala. Hori dala eta eskola mailan erronka bat egitea

bururatu jakien. 2019. urteko zementiako faktorea, 2018. urteko zementiako faktorea baino merkeagoa izatea. Hau da, energia gixiago konsumidutea.

Lehenik eta behin Udalagaz hartu-emonetan ipini ziran gutun formal baten bidez euren asmoa adierazoteko eta fakturak eskatzeko.

Ondoren, eskola mailan informazio kanpaina bat antolatu eben. Gelaz gela erronka azaldu eben eta eskolako kide guztien



laguntzea behar ebela adierazo eutseen helburua lortzeko. Horrez gainera, eskolako garbitzaileak be hartu-emonetan ipini ziran eskutitz formal baten bitartez. Berari be adierazoteko zein asmo eukien eta berak be parte hartu dagian erronka honetan.

Honek dira ikasleak emondako gomendioetariko batzuk: Eguzkiaren argia aprobetxatu, persianak igon eta argia beharrezkoa danean bakarrik biztu. Patioan,

jantokian edo gelan ez gagozanean argiak beti itzalita. Kontuz ibili "stand by" konsumoagaz, hau da, ordenagailu pantailak, proiektoreak, ordenagailu portatilen armairuen kargagailuak eta abar erabilten ez doguzanean guztiz itzali edo desentxufau.

Neurri honek guztiak kontuan izanda, eta 2018ko eta 2019ko fakturak aztertu ondoren, ikusi zan erronka lortu ebela, gixigaitik bazan be.

Hartutako neurriak kontuan izanda eta faktura bien arteko aldea oso txikia zala ikusita, hausnarketa bat egitera behartu eben eta hurrengo ondoriora heldu ziran:

Etxeko tresnak, adibidez garbigailua, lisagailua, ule sikagailua, kafeterea, hozkailua ziralda ener-

gia konsumoaren zatirik handiena hartzean dabena. Argia etxe baten energiaren konsumoaren %18 da, gainontzeko %82 etxekotresnak konsumiduten dabe. Beraz, eskolan etxeko tresna gixi dagozanez konsumoaren murrizketea bajua izan zan.

Animatu eta saiatu zuen etxetan erronka egiten!



AGENDEA

ZEZEILAK 3 BEDIA

Martiaren 14ra arte, Kolazino Mendi Egunean izena emoteko epea zabalik dago *Sportmaniacs* webgunean. Mendi Martxea, Mendi Lasterketea eta BTT Lasterketea martiaren 21ean izango dira.

DIMA

Hilaren 10era arte, Andraizeak andra taldearen boltsa diseinu lehiaketarako diseinuak bialdu daitezke *andraizea@gmail.com* helbidera.

19:00etan, Formakuntza: Eskolako patioaren eraldaketarako prozesu parte-hartzailea Abaroa aretoan.

IGORRE

Hilaren 9ra arte, Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako kanporaketan parte hartzeako izena emoteko epea Troka tabernan. 25 euro bikoteko.

Hilaren 28ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen Mendirik mendi argazki erakusketea Kultur Etxean.

Eskietan urtekerea Valdezcarayra hilaren 26an. Izen emotea hilaren 10era arte Gazteria Zerbitzuko bulegoan edo WhatsApp-ez 688 898 765 telefonoan. Igorren erroladatukoak 15 euro, besteak 25.



LEMOA

Hilaren 14ra arte, Lemoan Pausoz Pauso erronkan izena emoteko epea zabalik.

ZEANURI

Urri lehenengoaren 27an izango dan Gorbeia Suzieneko 21 kilometroko lasterketarako izen emotea zabalik *www.gorbeiasuzien.eus* webgunean.

ZEBERIO

San Blas jaiak Saldarain auzoan. 12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

ZEZEILAK 4 ARANTZAZU

21:00etan, Agate Deuna, Arratiako Korua.

AREATZA

08:00etan, Arratiako Koruak mezea; 08:30etan, urtekerea; 21:30etan, Agate Deuna koplak kantetako ibilbideari amaierera plazan.

ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua hasiko da. Ordua hartzeako eta informazio gehiagorako udaletxera deitu 94 673 92 05 edo 94 673 92 17.

14:45ean, eskola-umeak urtengo dira herritik Agate Deuna koplak kantetan; 21:15ean, Arratiako Korua plazan.

BEDIA

17:00etan, herritarrak plazan alkartu auzunez auzune Agate Deuna koplak kantetan joateko; 20:40ean, Arratiako Korua.

16:30etik 19:30era, hilaren 17ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan izena emoteko epea liburutegian. Ikastaroak honeek dira: *Sukaldaritza*, *Mermeladak eta saltsa ekologikoak* eta *Enplegu bilaketarako konpetentziak*.

DIMA

09:15ean, Agate Deuna, Arratiako Korua.

17:00etan, Maketa txokoa abiarazo. Gaia: jolas parkeetarako eraikuntzak.

IGORRE

07:45ean, autobusa Arratiako Korukoak Areatzara eroateko; 09:30ean, Agate Deuna, Arratiako Korua; 15:00etan, parrokiako korua futbol zelai aurrean eta 17:00etatik 20:30era, Orain presoak leloagaz taldea aterako da santaeskean.

LEMOA

09:45ean, Agate Deuna, Arratiako Korua eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeokoa Santa Agedako koplak kantetan udaletxean; ondoren eskola umeak herritik zehar joango dira kantetan.

UBIDE

Arrastian, umeak Agate Deuna koplak kantetan urtengo dira.

ZEANURI

08:45ean, Agate Deuna, Arratiako Korua. Egunean zehar beste koru batzuk be ibiliko dira kantuan.

ZEBERIO

Eskola umeak Agate Deuna kantetan goizean zehar.

ZEZEILAK 5 BEDIA

Martiaren 21ean egingo dan VI. Kolazinoko Mendi Egunean boluntario izateko aukerea *kmebedia@gmail.com* helbidean.

ZEZEILAK 6 AREATZA

18:30ean, herriko ibilbide historikoa Mikel Urrizek gidatuta. Plazan. AEKko Berbalagunak antolatuta.

19:30etik 20:30era, Lamino Kirol Klubagaz federetako aukerea, udaletxeko 3. solairuko lokalean. AKKB bazkidetza egiteko aukerea be egongo da. Federetako taldeko

bazkide izan behar da.

ARTEA

18:30ean, Euskaraldiaren batzordearen batzarra.

DIMA

19:00etan, Formakuntza: Eskolako patioaren eraldaketarako prozesu parte-hartzailea Abaroa aretoan.

IGORRE

20:00etan, zinekluba / *Am Not Your Negro* (Raoul Peck AEB, 2016) Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 7 ARTEA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra.

AREATZA

19:00etan, Gure Esku Dagoren batzar zabala Elkargunea aurkeztuteko. Udaletxeko Areto Nagusian.

LEMOA

Hilaren 9ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, astegoiena Pirinioetan. Mendiko eskia eta erraketak.

ZEANURI

19:00etan, Ongi Etorri Errefuxituak antolatuta, kafe tertulia. Bertan izango dira, Izaskun Arriaran Aita Mari itsas salbamenturako itsasontzikoak; Arrigorriagako Harreraren Bizi Eskola proiektua; Caravana centroamericana de madres de migrantes desaparecidos-eko partaideak; Aritz Ibañez Zaporeak alkartetako eta OEEko German Garcia eta Victor Sanchez. Eguzkiolan.



Arratia Kantuz Areatzan

Arratiako kantuzaleen 2020ko lehenengo hitzordua Areatzan izango da, zezeilaren 8an, 19:00etan. Herriko plazan batu eta ekingo deutsie kantu birari, konbidau berezi batzuk. Izan be, Lekeitioko kantuzaleak izango dira Arratian eta danak alkarregaz animauko dabek Areatzako kaleak.

ZEZEILAK 8 DIMA

10:30ean, Formakuntza: Eskolako patioaren eraldaketarako prozesu parte-hartzailea Abaroa aretoan.

IGORRE

Izotz pista txangoa 12-16 urte bitartekoentzat. 22:00etan, zinea *Mujercitas* Lasarte Aretoan. 22:30ean, Lendakaris Muertos taldearen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

ZEBERIO

San Blas errepitizino eguna Saldarainen. 12:00etan, mezea eta barauskarria. Meza abestua. Ugao-Miraballesko Sare Txiki Abesbatzagaz.

ZEZEILAK 9 IGORRE

17:00etan, zinea *Espias con disfraz*; 19:30ean, *Mujercitas*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, mezea Santa Ageda ermitan. Agate Deunaren bizitza kontetan dabek koplak mezan.

ZEZEILAK 10 BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, martiaren 14an egingo dan Oiluma Zar sagardotegira urtekerarako izen emotea liburutegian.

18:00etan, Eduardo Traver farmazeutikoaren berbaldia *Ekuma: Bissau Gineako osasun lankidetz*a liburutegian.

ZEZEILAK 11 ZEANURI

18:30ean, *Arteterapia* tailerra Elda Barreroren eskutik. Izena emon 650 929 761 telefonoan. Eguzkiolan.



ZEZEILAK 14 ARANTZAZU

Arginatx Mendi Elkartek antolatuta Picos de Europa urtekerea 16ra arte.

AREATZA

22:00etan, Skull Band taldearen kontzertua Bixer Tabernan.



BEDIA

18:15ean, astegoieneko urtekerea eskietan Baqueira-Beret-era. Autobus geralekuan. Bueltea domekan 21:00ak inguruan.

IGORRE

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta,

Mendi amesgarriak. Mendi Tour 2020 Mendifilm jaialdiko pelikula saioa Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:00etan, Ainara G. Goitiandiaren *Cómeme la flor* liburuaen aurkezpena liburutegian.



ZEANURI

19:00etan, *Iraultzaren haziak* dokumentala. Kurdistango andren burruka Rojavan. Eguzkiolan.

ZEZEILAK 15 IGORRE

16:00etan, Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako kanporaketea Troka tabernan.

20:00etan, Etxanderak *Zantigitu guztien gainetik* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Zugatz Eguna San Antolinen. Elizondon.

ZEBERIO

11:00etan, liztor asiatiakoaren kontrako tailerra Gaztelekuan.

ZEZEILAK 16 ARTEA

13:00etan, Kanporamartxo Elixabeitin.

BEDIA

Kanporamartxo. Goizeko urtekerea Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.

17:00etan, belaualdiarteko truke programea Bediako nagusientzako etxean. 13 eta 22 urte arteko gazteak Jandoniz egoiztan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Operación Panda*; 19:30ean, *Richard Jewell* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

ZEANURI

San Balendin jaiak. 11:30ean, mezea parrokiari; ostean, San Balendinen irudia parrokiatik Piedadeko ermitara eroan prozesinoan; barauskarria jagon diran pamitxen bedeinkapena; 11:15ean, Piedadeko artearen neurketea; datorren urteko maiordomoari agiri liburua eta ermitako giltzak pasetea; 12:30ean, barauskarria: urdaia, ardaoa eta pamitxea. Herriko bistulariak eta bertsulariak.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak antolatuta Kanporamartxo Upoko pagadian.

AKIMIKO

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak dira. Deitu 657 777 542 zenbakira.

TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

DANERIK

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

BASERRI BILA

Lagun bi, alokairuan hartzeako baserri bila gabiz. Deitu 690 984 588 edo 678 902 509 telefonora.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, DBH 4. mailako

Fisika eta Kimikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Interesdunak deitu 620 607 952 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiliz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezker, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kiñu Gazteteak emondako bina sarrera Lendakaris Muertos taldearen kontzerturako.

Jon Ordeñana (Areatza)
Maitane Iruarizaga (Zeanuri)



2 Gontzal Mendibilek emondako Biok CD bana.

Kubulu Euskaltegia (Igorre)
Olaia Gurtubai (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
sem
e-ig
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
argitalpena

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan, 3 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 090 487830 • 090 200 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)


BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel. 94-673-70-87
Tel. 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejatexa@hotmail.com

Pinturas Assatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992


BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



Gure eskaintzak San Balendinerako:



- **BAINUETXEAN AUKERATZEKO:**
- > **BIKOTEENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA:** "El manantial" zirkuitu termala (40') + aukeratzeko gorputz estalkia (30') + masaje erromantikoa laranja orio beroagaz (20') (49 euro banaka, 89 euro bikotean)
- > **EPSOM GATZAK:** "El manantial" zirkuitu termala (40') + exfoliazinoa gatza eta aromaterapiagaz (30') + masaje lasagarria (20') (49 euro banaka, 89 euro bikotean)
- > **KAFE USAINAK:** "El manantial" zirkuitu termala (40') + kafe estraktuagaz gorputz estalkia (30') + masaje lasagarria (20') (49 euro banaka, 89 euro bikotean)



Gozatu edo oparitu

